

4. IRABAZI ITURRIAK

Guk kostu finko asko ez ditugu izango, lokalaren alokairua ez dugulako ordaindu behar. Hala eta guztiz ere, mailegua ordaindu behar dugunez, 10 urtetan ordainduko dugula kalkulatzeko dugu, hori kostu finkotzat hartuko genuke. Bestalde, kostu aldakorrak kontsumoaren arabera izango dira. Hasiera batean, gure ikuspenaren arabera ekoizpena egingo dugu eta gero, bezero kopuruaren arabera egingo diogu hornitzaileari eskaria.

Gure prezioari dagokionez, hasiera batean, gastu handiak izango ditugunez, prezioak apur bat altuak jarriko ditugu. Ekoizpenarekin aurrera egiten dugun heinean, gure kostuak txikitzen joango dira eta bolumen handian eginez gero, gure ustetan hornitzaileek deskonturen bat egingo digutenez, prezioak jaitsiko ditugu.

Bestalde, lehiakide asko ez ditugun arren, gure produktuak ditugun lehiakideekiko desberdinduko ditugu eta horrek prezioak igotzea ahalbideratuko digu. Bukatzeko, hornitzaileekin eta bezeroekin prezioak negoziatzen saiatuko gara, horrela guztiak gogobeteta senti gaitezten.

Beste irabazi iturri nagusi bat diru-laguntzak izango dira, hauek, gobernu erakundeetatik etorrira, handiak izatea espero dugu. Diru-laguntza horiek noski, kaleko txakurrak hartzeagatik eta hauek zaintzeagatik lortuko genituzke, gizartearen onurarako ekintzak egiten baititugu.

Bestalde, gure enpresarekiko donazioak egitea ere onartuko genuke, eta kausa egoki batengatik dirua eman nahi digun oro ongietorria izango da. Donazio horiek egiteko, gure web orrian naiz dendan izango dute aukera, esku dirutan nahiz transferentzia bidez. Donazio hauek gehienetan animaliekin (gehienetan txakurrekin) lotura zuzena duten eta boluntario lanera joan ezin direnek egiten dizkigute.